

## BBK ERREPORTAIA LEHIAKETA

## Atxarte bizirik, baina noiz arte?

**ASPALDIKO ARAZOA.** 90eko hamarkadaren hasierako liskarrak oraindino danon gogoan dagozala, Abadiñoko Udalak Atxarteko harrobiak zabaltzeko bidea libre dauka

**G**aur egun mendizale eta eskalatzailentzako hain ezaguna dan Atxartek, aspaldi eukin abazan bere lehenengo hartu-emonak gizakikokaz. Izan be, orain ehun bat milioi urte eratutako kareharrizko hormatzar honeen inguruan, Bizkaian topatu dabezan Goi Paleolitikoko lehen giza kokalekuak agertu ziran. Joxe Miel Barandiaranek hiru aztarnategi arakatu ebazan hemen 30eko hamarkadan, baita ehizarako eta etxerako tresnak topatu be. Baina Gerra Zibilagatik azterketok gelditu behar izan ebazan, eta geroago aztarnategietako bi, harrobiak janda desagertu ziran.

Barandiaran hemen beharrean ibili eta gitxira, 1936ko hasieran, Atxarteko lehenengo eskalada egin eben. Sopeñak, 1924an Urduñan Euskal Herriko lehenengo eskalada ebanak, eta Apraizek Untzilatx mendiko Urrestei Dorrea menperatu eben. Gerra ostean, orduko eskalatzaila apurren topaleku bihurtu zan Atxarte, eta 46an, Euskal Herrian hatxean egindako lehenengo eskalada ikastaroa egin eben hemen. 50 eta 60ko hamarkadetan, gaur klasikoak diran eskalada bide asko zabaltu ebezan, bai Untzilatxen bai Aitz-Txikin. Gero, denpora luzean ez eben bide barririk zabaltu, baina 80ko hamarkadaren hasieran, eskaladarako pentsaera barriek eraginda, bide labur eta gatzagoak zabaltzen hasi ziran.

Gaur egun, Atxarte eskalada eskola da, eta bertan danetarik dago, bide errazak eta gatzak. Horretaz ganera, mendira joateko abiapuntu aproposa be bada; Untzilatx, Aitz-Txiki, Alluitz edo Anbotora igoteko hasiera polita da eta. Baina, hurreratu ko danak edozein kirol egingo dauala be, leku horren edertasunaz gozatuko dau. Halandabe, badago ikuskizun hori kaltetuko dauan zeozer, hau da, 90eko hamarkada hasieran, Atxarte, mendizaleentzako ez eze, herritar guz-

tiontzako ezaguna egin eben harrobiak.

#### Liskarrak Parke Naturalean

1990eko urtarrilean, Urkiola parke naturala izendatu eben. Ingurune babestu horretatik kanpo geratu ziran Mañariko hiru harrobiak, Parkearen mugak bertaraino heltzen baziran be ez ebezan eta barruan sartu. Atxarteko biak, barriz, barruan gelditu ziran, eta Parkea arautzeko planaren arabera zarratu egin behar ebezan. Baina plan hori beteten ez ebela ikusita, 90eko maiatzean Urkiolaren Aldeko Batzordea sortu eben hainbat herritarrek. Leherketak geldiarazteko, bagilean, hain fama-tua egingo zan hamaka eskegi eben lehenengoz UABkoek, Labargorriko horman, Atxarte harrobiaren ganean. Geroago be, 94ko zemendira arte, beste sei bider erabili behar izan eben protestatzeko modu hori, eta horreetako batean lau hila-bete egon ziran eskegita.

Hamakatik jaisteko, bakotxean arrazoi bat euki eben, besteak beste, Administrazioaren konfiantza jarrea, Ertzaintzaren kargak, edo eguraldi txarra, baina arrazoiak edozein zirala be, arazoa ez zan konpontzen. Halandabe, 91 eta 95 urteen artean, Atxarteko harrobiak ia geldirik egon ziran UABekoen ustean.

Baina denpora horretan, beste hainbat gauza jazo ziran harrobien gatazkaren inguruan. Esaterako, Atxarteko harrobien errekupezinorako, Bizkaiko Foru Aldundiko 91ko irailean atondutako ideia lehiaketa. Horren irabazlea, 550 mila tona harriko ustiaketa proposatu eban EKOS enpresaren egitasmoa izan zan. Proiektuak, baina, ez eban aurrera egin, besteak beste, harginek jarritako trabengaitik, eta leherketak egiten jarraitu eben, batzuetan baimenagaz, beste batzuetan legez kanpo. Azkenean, 94ko hamaieran guztiz baztertu

eben EKOS plana, eta Energia-ren Euskal Erakundeari beste bat egiteko eskatu eutsoen. Egitasmo hori 95ean aurkeztu eben eta Eusko Jaurlaritzak onartu egin eban.

#### Etorkizuna Abadiñoko Udalaren esku geratzen da

Gatazka Durangoko epaitegira be heldu zan. 93an, Abadiñoko Udalak, Atxarte eta Atxa Txiki harrobietako enpresen kontratuak amaitutzat emon ebazan, bere asmoa enpresa bat sortu eta harri ustiaketagaz bere kontura jarraitzea zalako. Atxa Txiki koek erabagi hori onartu eben, baina Atxartekoek ez, euren ustez 97ra arteko baimena eukien eta. Horregaitik, harrobi-ko arduradunek Abadiñoko Udala salatu eben, baina Durangoko epaileak atzera bota eban salaketa, eta Atxartekoek salaketa jarri eben Euskadiko Auzitegi Nagusian. Azkenean, 99ko martian, Auzitegi horrek Abadiñoko Udalari emon eutson arrazoia, eta harrobiaren

kontratua amaituta egoala esan eban. Holan, Udalak enpresa barria sortu eta mendia ustiatzen jarraitzeko bidea libre dauka. 95ean Eusko Jaurlaritzak onartutako egitasmoan oinarrituta egingo leuke hori, hau da, hamar urtean gitxienez, ia zazpi milioi tona harri aterata.

UABekoek, jendeaurreko eritxirik emon ez eben arren, beti egin eben errekupezinoren alde, eta ez ustiaketa-errekupezinoren alde. Ganera, lehenago be, inoiz esan eben, harrobietako beharrak barriro hasi ezker, eurak protestei ekingo leuskioezala lehen egin eben moduan.

Beraz, gaur egun, jakin badakigu Atxarten zer jazo daitekeen, baina ez zer jazoko dan. Espero daigun egiten dabena egiten dabela, ez daiela gehiago kaltetu paraje eder hori, eta guztiok jarraitu daigula bera-gaz gozatzen.

**GARIKOITZ BRAGADO AZPIRI**  
DURANGO



GARIKOITZ BRAGADO

Untzilatx mendiko harrobiak: Atxa Txiki, ezkerrean, eta Atxarte, eskuman.